



2024ko uztailaren 2a


EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA
INTERSEKZIONALITATEAREN IKUSPEGITIK.
(GLOTODIDAKTIKA VIII. TOPAKETA)

DISLEXIA



dek

æek



DISLEXIA

Zer da?

Zer egin?

Jarri praktikan.

UEU

EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA
INTERSEKZIONALITATEAREN IKUSPEGITIK.
(GLOTODIDAKTIKA VIII. TOPAKETA)



Dislegiren laguntzaz

Ελληνικό Συλλόγος Δυσλεξίας Επικοινωνίας
Asociación Dislexia-Γραμματική

Sarrera: aurre-ezagutzak aktibatzen

aek


Zer da dislexia?

Zein da prebalentzia?

Zein adinetan antzeman ohi da?

Zein zailtasun izaten dituzte?

Zer laguntza behar izaten dute?



UEU

EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA
INTERSEKZIONALITATEAREN IKUSPEGITIK.
(GLOTODIDAKTIKA VIII. TOPAKETA)



Dislegiren laguntzaz

Οργανισμός Διασύνθεσης Παικτών
Ασocioación Dislexia Gupuztea

dek

3573 M3N54J3 35 94R4 D3M057R4R L45
C0545 74N INCR3I8L35 QU3 9U3D3 H4C3R
NU357R0 C3R38R0. 5I L06R45 L33R 3570
9U3D35 53N7IR73 OR6ULL050 D3 7U
IN73LI63NCI4, Y4 QU3 50LO CI3R745
93R50N45 LO L06R4N. 35T0 53 D383 4 QU3 3L
H3M15F3R10 D3R3CH0 D3L C3R38R0 450C14
L05 51M80L05 94R3C1D05 4 L45 L3TR45 QU3
CONOC3M05 NORM4LM3NT3 Y 451 L06R4M05
L33R CON F4C1L1D4D.

Sgeun un etsduio de una uivenrsdiad
ignlsea, no ipmotra el odren en el que las
ltears etsan ersciats, la uicna csoa
ipormtnate es que la pmrrea y la utlima
ltera esten ecsritas en la psiocion
cocrtea. La rpesstuea crecrtoa es
copeman. El rsteo peuden estar
ttaolmntee mal y aun pordas lerelo sin
pobrleams. Etso es pquore no lemeos
cada ltera por si msima preo la paalbra
es un tdo.

Este es un claro ejemplo de que no
necesitas tener un texto presentado de
forma excelente para comprender lo
que lees. Como te habrás dado cuenta
en este momento, este artículo está
escrito de forma que se muestra sólo
parte de las letras o las palabras. Aunque
así estás entendiendo prácticamente
todo y, si además estás leyendo
rápidamente, te resultará más fácil
comprenderlo.




UEU



Zer EZ da **dislexia**?


- ▶ **Adimen edo zentzumen desgaitasuna.**
- ▶ **Motibazio edo arreta eza.**
- ▶ **Heldutasun falta.**
- ▶ **Arazo emozionalen ondorioa.**
- ▶ **Heldutasunarekin gainditzen den atzerapena.**

æek



Zer da **dislexia**?

aek




Dislexia, **jatorri neurobiologikoa** duen eragozpena da. **Idazketa eta irakurketarekin** loturik dauden hizkuntza-abileziei eragiten die: dekodifikazioari, kontzientzia fonologikoari, hizki-trazuen pertzepzioari, etab.

Ortografia eta kalkulu aritmetikorako eta irakurketa automatizatzeko zailtasun esanguratsua eta iraunkorra.

Adierazpen eta ulermenean oztopo nabariak.

Arreta tarte mugatuak izaten dituzte.



UEU

EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA
INTERSEKZIONALITATEAREN IKUSPEGITIK.
(GLOTODIDAKTIKA VIII. TOPAKETA)



Dislegiren laguntzaz

Οργανισμός Έρευνας Ίκτιντος
Ασολαοιόν Δισλεκτιν Γρηνπάζων

Ortografiarekin borrokan:

æk

Kasi zaunka egiten ondo montaten
da bisitekin. Hori bahi kinu aldic
atera bea da bere gauzak
egitera. kaka zaso bearda ereba.
Bestela oso pozik nago txakurnekin
Ez da kezatzen eta egunero
gaude zolasen parkean.
Bahina umeak bezala erakutsi
behar zait. Etzera iristean oso

ozik gartzen da. txakurnen
anaria gerentia da. Hori bahi
uneak bezala ahar gauzak
artzen dute. Hasko mitatzen
nahi txakurra. txakura
dotatzen ere oso gerentia
la. Ni gobidatzen zahitut txaku
at adotatzea. Nire lagun



Ortografia
ideobisuala

Kaixo laguna. Nik txakura
betidan izan nahi nuen.
Gozoratzen naiz txikitari beti
nire gurasari eskatu nion.
5 Ni oso pozik nago txakurra reki
oso txintxo da nire txakura.
Ori nasatzen duan. Ez du

UEU



Adierazle nagusiak

æek

ZEHAZTASUNA:

- Desberdintasun grafiko txikiak dituzten letrak nahastea (m/n - d/b - j/g - 7/T - 6-9...)

Letra edo silaba osoak alderantzizkatzea, gehitzea, ezabatzea edo ordezkatzeta.

IDAZKETA:

- Idazteko zailtasunak (zaindu gabe, orden eza, ulergaitza).
- Testuak egituratzeko eta planifikatzeko zailtasunak.
- Lexiko urria eta lokailu gutxi.
- Grafia "txarra" (disgrafia) eta ortografia akatsekin (disortografia).

ERRITMOA:

- Poliki eta nekez irakurtzea (gehiegizko esfortzua).
- Intonazio eta erritmo falta (puntuazio arauak)
- Atzera itzultzea, ilaraz salto egitea, eskubitik ezkerrera...
- Irakurketa silabikoa edo hitzez hitz (+info. ezezaguna).
- Jarduerak burutzeko denbora gehiago behar izatea

EMAITZA ≠ DENBORA

ORTOGRAFIA:

- Ortografia arbitrarioan akatsak (b/v, rr/r, y/ll, c/k)
- Letreiatzeko abilezia eskasa.
- Akats ugari, desberdinak eta denbora luzez mantentzea.

ULERMENA:

- Irakurritakoa ez ulertzea (+ info. ez literala).
- Ahoz; zailtasun gutxiago.

ZAILTASUN ESPEZIFIKOAK:

- Seriazioak (biderketa taulak, hilabeteak, urtaroak...).
- Atzerriko hizkuntzak (ez-gardena).
- Lanerako memoria operatiboa (+ epe-laburrekoa).
- Denbora eta espazioan kokatzeko zailtasunak.
- Motibazioan eragina --> errefuxatze jarrera.
- Autoestima eskasa, antsietatea, urduritasuna...
- Jarrera aldaketa nabariak (inhibizioa, depresioa, oldarkotasuna...)
- Orokorrean etekin akademiko eskasa.

UEU

EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA
INTERSEKZIONALITATEAREN IKUSPEGITIK.
(GLOTODIDAKTIKA VIII. TOPAKETA)



Dislegiren laguntzaz

Gipuzkoako Dislexia Irakurtas
Asotzazióin Dislexia Gorpuztea

æek

4-6 urte

- Errimatzeko zailtasuna.
- Kontzientzia fonologikoa inplikatzeko duen jolasetan zailtasuna; hitz baten zatia aldatzeko, azken silabarekin beste hitz bat osatzeko...
- Irudiak azkar izendatzeko/deskribatzeko zailtasuna.
- Zenbakiaren seirazioak memorizatzeke zailtasuna (entzuten edo irakurtzen dituzten ordenean).
- Epe laburreko memoria erabiltzeko zailtasuna.

7-11 urte

- Hitzen arteko nahasmena.
- Adierazgarritasunean zailtasuna.
- Letrak ezagutzeko zailtasuna.
- Matematikan zailtasuna (biderketa taulak, seriazioak, buruketak...)
- Letrei lotutako soinuak antzemateko zailtasuna.
- Argibideak jarraitzeko zailtasuna.
- Atentzioa mantentzeko zailtasuna.
- Idaztea eta irakurtzea ekiditeko joera.

12-14 urte

- Akatsak irakurmenean.
- Mantsotasuna, silabatan zatituta, zalantzakorra, geldiuneak, errepikapenak...
- Letreiatzeko zailtasuna.
- Ezezagunak diren hitzak irakurtzeko zailtasuna.
- Idazkera kaxkarra, ortografia akatsak, idazlanetan zailtasunak.
- Irakurketan ulermen urritasuna.
- Datuak epe laburrean gordetzeko zailtasuna.
- Hizkuntza ez gardenak ikasteko zailtasuna.

+15 urte

- Bat-bateko memorian hutsegiteak.
- Irakurmenean ulermen urritasuna.
- Jasotako informazioaren interpretazio traketak edo okerra.
- Espazioa antolatzeke zailtasuna.
- Denbora antolatzeke zailtasuna / Ez du antolatzen.
- Mantsoa lanetan/ekintzetan.
- Irakurtzea, idaztea edota kalkuluak egitea ekidin.
- Lanean/ikasten emandako denbora eta emaitzen arteko elkarrekotasun eza.
- Jarrera disruptiboak azaleratu ditzakete, frustrazioa, autoestimua baxua, depresioa, antsietatea, eta abarren ondorioz.




UEU

EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA
INTERSEKZIONALITATEAREN IKUSPEGITIK.
(GLOTODIDAKTIKA VIII. TOPAKETA)



Dislegiren laguntzaz

Οργανισμός Διαχείρισης Εκπαιδευτικών
Ασθενειών Διαδικτυακή Ομάδα



PLATAFORMA DISLEXIA 21ENEROK egina



EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA
INTERSEKZIONALITATEAREN IKUSPEGITIK.
(GLOTODIDAKTIKA VIII. TOPAKETA)



Dislegiren laguntzaz

*Gipuzkoako Dislexia Elkarteak
Asociación Dislexia Gipuzkoan*

Argibide batzuk:

æek

IRAKURKETA:

- **Idatzizko lanetan maila baxua**, ahozko mintzairan dituen gaitasunekin alderatuta.
- Idatzizko lanen **aurkezpen** osatugabe, narras edo nahasia.
- **Idatzizko ariketak ekiditen** ditu edo gustuko ez dituela dirudi.
- Esaldiaren **egitura okerra** edo nahasia.
- **Plangintzarako** zailtasunak: ideien/gertaeren sekuentzia "nahasia", denborarekin nahasi.
- Zenbaki eta hizkiak **alderantzizkatzeko** joera (b/d, p/q, 2/5, 6/9...).
- **Puntuazioaren erabilera** okerra edo mugatua.
- **Ortografiari** dagokionez, sendotasun eza; hainbat modutara letreiatzen du hitz bera.

IDAZKETA:

- Irakurri edo letreiatzerakoan **ordena nahastea** (opsitale/ospitale, tigre/trigea...).
- Irakurketa **motela**, segurtasun gabea, zehaztugabea eta **espresiorik gabea**.
- Irakurtzen ari dela **haria galtzeko joera**; ezkerretik eskuinera irakurtzeko arazoak.
- **Alderantzizkaketak** (azpi/zazpi, ezin/zein...).
- Hitzen edo silaben **omisioa** (hitzak kendu edo gehitu).

UEU

EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA
INTERSEKZIONALITATEAREN IKUSPEGITIK.
(GLOTODIDAKTIKA VIII. TOPAKETA)



Dislegiren laguntzaz

Οργανισμός Διαταξίας Ίλιξαρτος
Asociación Dislexia Gorpuztea

Dislexia eta autoestimua:

æk

Portaera:

- **Orden eza** eta nahasmena eguneroko zereginetan.
- **lhesbide-taktikak** erabili; material artean bila ibili, arkatza zorroztu...
- Lan egiterako orduan **sendotasun falta**; egun oso onak eta oso txarrak.
- **Urduri, nekatuta edota adi ez** dagoela dirudi, baita arreta erraz galtzen duela ere.
- **Esfortzu ikaragarria eta etekin gutxi** lanari; arrakasta ezak eragindako frustrazioa.
- Ikasgelan "**pailazo**" rola izan dezake, jarrera disruptiboak.

Dislexia ez antzemateak larritasun emozional edo fisikoa eragin dezake

Nahasmena: dituzten zailtasun eta trebetasunen inguruan. Ez dute guztiz ulertzen dislexia zer den, zertan eragiten duen, zer suposatzen duen, zer egin dezaketen...

Haserrea: ez beraiek, ezta beste pertsona batzuek ere, dislexia ez ulertzeak eragiten duen frustrazioaren ondoren.

Ezezkotasuna: ahaleginak hutsalak direla sentitzeaz gain, arrakasta zorte kontua izango dela sentitzen dute. Autoestimua baxua dute eta onuragarriak ez diren alderaketak egiten dituzte ingurukoekin.

Antsietatea: iraganean porrot egin izanak berri ere egingo dutela pentsarazten die.

Etsipena: "zergatik hartu lan hori?" amore eman nahi izatea.

Depresioa: sumindura barneratu egiten da. Bakarrik daudela senti dezakete, gainontzekoek ulertzen ez duten beldurrez.

"**Behar bezain onak**" ez direla sentitzen dute. Uko egitera jotzen dute.

UEU

EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA
INTERSEKZIONALITATEAREN IKUSPEGITIK.
(GLOTODIDAKTIKA VIII. TOPAKETA)



Dislegiren laguntzaz

Οργανισμός Διαχείρισης Εκπαιδευτικών
Ασθενειών Διαλέξις-Γραμμάτισμα

Argibide batzuk:

æek

IRAKURKETA:

- **Idatzizko lanetan maila baxua**, ahozko mintzairan dituen gaitasunekin alderatuta.
- Idatzizko lanen **aurkezpen** osatugabe, narras edo nahasia.
- **Idatzizko ariketak ekiditen** ditu edo gustuko ez dituela dirudi.
- Esaldiaren **egitura okerra** edo nahasia.
- **Plangintzarako** zailtasunak: ideien/gertaeren sekuentzia "nahasia", denborarekin nahasi.
- Zenbaki eta hizkiak **alderantzizkatzeko** joera (b/d, p/q, 2/5, 6/9...).
- **Puntuazioaren erabilera** okerra edo mugatua.
- **Ortografiari** dagokionez, sendotasun eza; hainbat modutara letreiatzen du hitz bera.

IDAZKETA:

- Irakurri edo letreiatzerakoan **ordena nahastea** (opsitale/ospitale, tigre/trigea...).
- Irakurketa **motela**, segurtasun gabea, zehaztugabea eta **espresiorik gabea**.
- Irakurtzen ari dela **haria galtzeko joera**; ezkerretik eskuinera irakurtzeko arazoak.
- **Alderantzizkaketak** (azpi/zazpi, ezin/zein...).
- Hitzen edo silaben **omisioa** (hitzak kendu edo gehitu).

UEU

EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA
INTERSEKZIONALITATEAREN IKUSPEGITIK.
(GLOTODIDAKTIKA VIII. TOPAKETA)



Dislegiren laguntzaz

Οργανισμός Διαταξίας Ίλιξαρτος
Asociación Dislexia Gorpuztea

Nola lagundu:

KOKAPENA

- Irakaslea argi ikusi eta entzungo duen lekuan jarri (arbela eta argibide bisualak).
- Jardueraren arabera taldekatu, ez alfabetikoki.

INFORMAZIOA, JARRAIBIDEAK, ANTOLAKETA

- Informazioa prozesatzeko eta erantzuteko nahikoa denbora eskaini.
- Argibide labur eta sinpleak eman.
- Informazioa eta azalpenak era askotan eman (irudiak, fluxu-diagramak, eskemak...)
- Jarraibideak eman eta gogorarazi; zer egin behar duen, non aurkitu...
- Materialei etiketak jarri eta leku berean gorde beti.
- Eman koaderno bat mahaian izateko (hitz-bankuak, jarraibide eta helburu pertsonalak).
- Azaldu nola erabili guztia.

MEMORIA

- Zentzumen-aniztun teknikak erabili, informazioa behar bezala barneratu duela ziurtatu.
- Estrategiak irakatsi letren soinuak eta ortografia arauak ikasten laguntzeko.
- Dislexia duten pertsona askok sinestesia bidez ikasten dute; eginez.
- Erabili erritmoa eta jarduera bisualak memoria estimulatzeko eta oroitzapenak berreskuratzeko.

IDAZLANA

- Sustatu idazketaren alternatiba: marraztu, erantzunak diktatu, grabatu...
- Idatzizkoak ez diren erantzunez (marrazkiak, diktaketak) baliatu ezagutza eta aurrerapenak ebaluatzeko.
- Mugatu idatzizko eskaerak eta behar adina denbora eman idazlanak egiteko.
- Mekanografiatzen ikasi dezatela; ordenagailua erabiltzera bultzatu.
- Eman planifikazio formatuak, idazkera markoak...
- idazlanetarako.
- Irakatsi mapa mentalak, mapa kontzeptualak, fluxu-diagrama, teknologia berriak, etab. erabiltzen.

IRAKURKETA

- Eman tindatutako iragazkiak/estalkiak edo irakurketa markatzaileak.
- Irakurketa baliabideak eta gaitasunak parekatu bere adinera.
- Formatu digitalean edo audio formatuan dauden liburuen erabilera sustatu.
- Irakatsi gako hitzak azpimarratzen, kolore eta irudiak zuzen erabiltzen; informazioa gogoratzeko.
- Testuko punturik garrantzitsuenak azpimarratu, errazago ulertu eta gogoratzeko.
- Bakarkako irakurketa aurrez prestatu antolatuta.
- Binakako/partekatutako jarduerak txertatu (erosotasuna, ulermena konfiantza ahalbide zeko)

ARBELEKO LANA

- Arbelean irakurri beharreko edo bertatik kopiatu beharreko lan kopurua murriztu.
- Kopia edo ohar/adibideak eman.
- Kolore beltza edo urdina erabili arbelaren fondo gisa.
- Taula zuriak saihestu, distira eta erreflexuak ezabatzeko.
- Hainbat kolorez baliatu itemak idazteko.
- Lerro/gai bakoitzaren hasiera eta amaiera modu argian izendatu edo markatu.

aek



Nola lagundu: materiala

aek

CLAROREAD

Metodologia inklusiboak:

- Elkarlana ikasteko teknikak.
- Bikoteak, taldeak.
- Monitorizazioa.
- Talde interaktiboak.
- Tertulia literarioak.
- ...



Century Gothic

Comic Sans

Arial

Verdana


Tahoma

DK Cool Crayon

Dyslexie font



Text-To-Speech



- 1,5eko edo biko espazioa utzi testuaren lerroartean.
- Marjina zabalak erabili.
- Letra xehea erabili letra larriaren ordean.
- Prosa beharrez, erabili zenbakidun edo puntodun binetak.



FOTOKOPIAK ETA LIBURUAK ESKURA
(AZPIMARRATZEKO)



IRAKURLE DIGITALA (Berritzegune)



- Hitzek elkarketa eragin dezaketen azpimarrak edo italikak ekidin.
- Erabili letra lodia izenburuetan eta azpitituluetan, baita informazio garrantzitsua edota gako-hitzak nabarmentzeko ere.
- Kolore-kodeak erabili testuan zehar – adibidez, informazioa kolore batez adierazi eta erantzunak beste batez-.

EREDUAK
PLANTILLAK
ADIBIDEAK



UEU

EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA
INTERSEKZIONALITATEAREN IKUSPEGITIK.
(GLOTODIDAKTIKA VIII. TOPAKETA)



Dislegiren laguntzaz

Γραμμολεξικό Διαλεκτικής Προφορίας
Ασocioación Dislexia-Grapiazean

Nola lagundu: metodologia

æk

- 1 Ez behartu ahots-gora eta besteen aurrean irakurtzera. Irakurgaia aurretik eman etxean presta dezan (aurkezpenak denboraz prestatu).
- 2 Arlo bakoitza gainditzeko behar dituen gutxieneko irizpide zehatzak ezarri.
- 3 Ikaskuntzak banatu eta pausoz pauso ulertzen dituela ziurtatu.
- 4 Denbora malgutu: ideiak antolatzeko eta lanak burutzeko. Oinarrizko konpetentziak gainditzen direla ahalbidetuz.
- 5 Informazioa behin eta berriro errepikatu (datak, jarraibideak, eta abar).
- 6 Argibideak sekuentzialki aurkeztu; jarraibideak irakurri, ahoz azaldu, euskarri bisual edo entzumen bidezkoak eskaini.
- 7 Enuntziatuak ez kopiarazi, ariketa/jardueraren ebazpenean zentratu.

UEU

EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA
INTERSEKZIONALITATEAREN IKUSPEGITIK.
(GLOTODIDAKTIKA VIII. TOPAKETA)



Dislegiren laguntzaz

Οργανισμός Διαγωγής Επικοινωνίας
Ασocioaión Dislexia Gorpuztea

Ebaluazioan:

dek

KONTUAN HARTU BEHARREKO ARGIBIDE BATZUK

1. Ikasleen ezaugarrietara egokitu.
2. **Ahozko azterketak** ahalbidetu.
3. **Material osagarriak erabiltzeko aukera** eman.
4. Azterketetako idatzizko materiala **grafikoz eta irudiz osatu** (ulertu dutela ziurtatu 5-10 minututara galdetu).
5. Erantzunen **edukia balioestea**, ortografiaz eta testuaren konposizioaz gain.
6. **Denboran malgutasunez** jokatu (azterketak, zereginak..).
7. Prozesuan parte-hartzen duten **profesional guztiak** inplikatu.
8. Hasierako mailaren arabera **ebalatu (aurrerapenak)**.
9. Zeregin **kopurua zaindu**.
10. **Idatzizko azterketen formatua zaindu**: tamaina, letra-mota, tarteak. *Ama-hizkuntzan galderak.
11. Galderak **zailtasunaren arabera** (errazenetik zailenera) ordenatu.



Zuzentzerakoan:

dek

KONTUAN HARTU BEHARREKO ARGIBIDE BATZUK

1. Zuzenketak markatzeko kodeak sortu ikasleekin batera.
2. Marraztea edo akatsak azpimarratzeko boligrafo gorria ekidin; arkatza edo sinboloak erabili.
3. Elkarrekin zuzendu, egindako akatsak azaltzeko.
4. Zehaztu zuzendu beharreko edukia, ortografia, gaitasun tekniko eta aurkezpen teknikak.
5. **Azpimarratutako akats kopurua murriztu**; mota bakoitzeko bat, esaterako.
6. Etorkizunean nola ekidin daitezkeen iradoki.
7. **Goraipamen zuzenak** egin; esfortzua eta jarrera baloratzen dela adierazi, lorpenak bermatu.
8. Gainontzeko **ikaskideen aurrean iruzkin negatiboak egitea saihestu**; bakarkako feedbacka lehenetsi.



UEU

EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA
INTERSEKZIONALITATEAREN IKUSPEGITIK.
(GLOTODIDAKTIKA VIII. TOPAKETA)




Dislegiren laguntzaz

Οργανισμός Διαχείρισης Εκπαιδευτικών
Ασθενειών Διαλεκτικής Γραψίματος

IKTak:

æek




EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA
INTERSEKZIONALITATEAREN IKUSPEGITIK.
(GLOTODIDAKTIKA VIII. TOPAKETA)



Dislegiren laguntzaz


Οργανισμός Διαγωγής Ιδιοκινήτων
Ασκήσεων Διαδικτύου-Εμπειρίας

æk



ueu
ueu

EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA
INTERSEKZIONALITATEAREN IKUSPEGITIK.
(GLOTODIDAKTIKA VIII. TOPAKETA)



Dislegiren laguntzaz

*Gipuzkoako Dislexia Ikerketen
Asotzazioa Dislexia-Grupuakoa*

Neurodibergentzia:

- Garunen arteko **diferentziak erdigunean**, ez gabeziak.
- Neuro-diferentziek aniztasuna eta bestelako **abilezia baliogarriak** zein **ikuspebi berritzaileak** dakartzate: zientzian, teknologian, artean, giza-zientzien alorrean...
- Garunaren ulermenean paradigma aldaketa: pertsona “dibergenteak” eta “neurotipikoak” **ez dira desberdinak**.
- Pentsatzeko eta arazoei aurre egiteko **bide berriak**.

NEURO-ANIZTASUNA onartzearen onurak: diferentziak onartu eta balorean jartzean, **jendarte ulerkorragoa** eta inklusiboagoa sustatzen da. Norbanako **bakoitzak ekarpen handiak** egin diezazkioke komunitateari.

Pertsona guztiak onartuak eta errespetatuak sentitzen dira.

Ikuspegi hori **bizitzaren arlo guztietan** islatzen da, baita **ikasketetan** ere: pertsonak modu desberdinean prozesatzen dugu informazioa eta neuro-aniztasunak gure **hezkuntza sistema hobetuko** luke, **nork bere gaitasunak garatzeko aukera** izango bailuke.

“**DISLEXIA EZKUTUA**”: zer gertatzen da pertsona horren **adimen koizientea normala baino altuagoa** denean? Gehienetan hizkuntzari lotutako gaitasun aurreratuak izaten dituzte, baina **alde handia egon ohi da ahozko eta idatzizko lanen artean**. Disgrafia eta disortografia izan ditzakete, eta baita koordinazio-motor egokiak egiteko zailtasunak ere (adibidez, kopiatzeko orduan).

Ikasle hauek **askoz hobeto irakurtzen dute isilean** altuan baino, eta orokorrean, **hobeto ulertzen dituzte testu luzeak motzak baino**. Hau da, liburu bat ondo uler dezakete, baina zailtasunak dituzte lauzpabost lerroko ariketa bateko azalpena ulertzeko: testu luze batetan, berdin dio hitz batzuk gaizki irakurtzeak, **aurrera egin ahala, hariari jarraiki, behar diren zuzenketak** egiten dituelako buruak. Testua laburra denean aldiz, tarte gutxiago dago aurrera egin ahala zuzenketak egiteko, eta gaizki ulertuz gero, **erraza da “akats tontoak”** egitea (matematikan, aukera anitzeko galderak erantzutean, ...).




Dislegiren laguntzaz

Gipuzkoako Dislexia Elkarteak
Asociación Dislexia Gipuzkoa

Dixlexia laburrean:

æek

- Baliteke **intentsitate desberdinarekin** azaleratzea.
- Diagnostikoak eta interbentzioak indibidualizatu behar du.
- Ikaskuntzaren berariazko zailtasuna da, **jatorri neurobiologikoduna** eta **karga genetiko handia** duena. **Hitzak** zehatz eta bizkor antzemateko eta **bereganatzeko zailtasuna** dakar. Ortografian eta dekodifikazioan arazoak ere bai. **Lanerako memoriari** eragiten dio, jarraibide asko batera ezin gogoratu. Zailtasun guzti hauek osagai fonologikoan hutsuneak izatearen ondorio dira.
- Dislexia, irakurtzeko zailtasunaz gain, esku-idazkeraz, ahozko hizkuntzaz, matematikarekin, plangintza eta koordinazio motorrekin, antolaketarekin, arretarekin, orientazioarekin, pertzepzio espazialarekin, entzumen eta ikusmen prozesamenduarekin, begien mugimenduaren kontrolarekin, memoriarekin, ... lotuta egon daiteke eta, **“dislexia ezkutua”** duten gaitasun handiko ikasleek **adinkideen pareko irakurketa-trebetasuna edo hobe** izan dezakete.
- Dislexia duten pertsonak **nabarmendu egiten dira ikusmen-prozesamenduan, kontzientzia espazial handia** izaten dute, eta **oso sortzaileak** izan daitezke.



Dislexia duten ikasleak ez dira **EZ ALPERRAK EZTA DESPISTATUAK** ere, ahalik eta azkarren detektatu eta ikasketetan aurrera egiteko **ESKU-HARTZE EGOKIA BEHAR dutenak** baizik, beren burmuinak ezberdin funtzionatzen duelako.

Gaitasun handia eta dislexia elkartzen diren kasuetan ere **detekzio goiztiarra oso garrantzitsua** da.

DISLEXIA bizitza guztirako da, ez da sendatzen, ez da gaixotasun bat.

UEU

EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA
INTERSEKZIONALITATEAREN IKUSPEGITIK.
(GLOTODIDAKTIKA VIII. TOPAKETA)



Dislegiren laguntzaz

Οργανισμός Διαλέξιας Επικοινωνίας
Asociación Dislexia-Garapuztea

Informazioa:

aek

Dislegi: <https://dislegi.eus/eu/> info@dislegi.eus

Dyslexia Scotland: <https://dyslexiascotland.org.uk/> <https://dyslexiascotland.org.uk/leaflets/>

Neurodibergentzia: <https://www.mundopsicologos.com/articulos/que-es-ser-neurodivergente-o-neurotipico-tipos-de-neurodiversidad>

“Dislexia ezkutua”: <https://guraso.eus/adimen-gaitasun-handia-eta-dislexia-ezkutua/>
<https://www.altacapacidadesytalentos.com/altas-capacidades-y-dislexia-video/>

“Ni vagos, ni despistados”: <https://www.infobae.com/espana/2023/07/16/ni-vagos-ni-despistados-la-dislexia-un-problema-al-que-no-se-le-da-importancia-y-solo-puedes-solucionar-si-lo-detectas-segun-luz-relo/>



Liburuak: “Studying with Dyslexia” by Janet Godwin
“Study Skills for Students with Dyslexia” by Sandra Hargreaves
“The Study Skills toolkit for students with Dyslexia” by Monica Gribben
“The Study Skills Handbook” by Stella Cotrell
“Izena duena da: gaitasun handikoak”, Izaskun Etxebarria
“Demasiado inteligente para ser feliz?”, Jean Siaud-Fachin

UEU

EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA
INTERSEKZIONALITATEAREN IKUSPEGITIK.
(GLOTODIDAKTIKA VIII. TOPAKETA)



Dislegiren laguntzaz

Gipuzkoako Dislexia Ikurteak
Asociación Dislexia Gipuzkoa

Erreferentziak:

The logo for 'aek' is written in a stylized, lowercase, orange font. It is positioned in the top right corner of the slide, partially overlapping a light blue circular graphic element.

Agiriano, A. (2024). Adimen gaitasun handia eta “dislexia ezkutua”. *Guraso*.
<https://guraso.eus/adimen-gaitasun-handia-eta-dislexia-ezkutua/>

British Dyslexia Association (2018, ots. 11). *See dyslexia differently*. [Bideoa].
YouTube. <https://www.youtube.com/watch?v=11r7CFIK2sc>

Dislegi (d. g.). *Dislegi*. Dislegi.eus. <https://dislegi.eus/eu/>

Rioja, L. (2024). ¿Qué es ser neurodivergente o neurotípico? Tipos de
neurodiversidad. *Mundo Psicólogos*. <https://www.mundopsicologos.com/articulos/que-es-ser-neurodivergente-o-neurotipico-tipos-de-neurodiversidad>

The logo for UEU consists of the letters 'UEU' in a bold, black, sans-serif font. The 'U's are stylized with vertical lines. It is located in the bottom left corner of the slide, within a light blue circular graphic element.

EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA
INTERSEKZIONALITATEAREN IKUSPEGITIK.
(GLOTODIDAKTIKA VIII. TOPAKETA)



Dislegiren laguntzaz

Οργανισμός Διαφορικής Ψυχολογίας
Asociación Dislexia-Gripuztea

æk



Mundu guztia
JENIO bat da,
baina arraina
epaitzen badugu
zuhaitzera
igotzeko duen
trebetasunagatik,
bizitza osoa
emango du
ERGELA dela
pentsatuz.

arantza -dislegi-
joseba, ane -æk-

ekservik akso

UEN
uen

EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA
INTERSEKZIONALITATEAREN IKUSPEGITIK.
(GLOTODIDAKTIKA VIII. TOPAKETA)



Dislegiren laguntzaz

Οργανισμός Διαγωγής Προφορής
Ασκήσεων Δυσλεξία-Γραφήσεων